

# “Zirrargarria da aurretik inork egin ez duen zerbait lortzea”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

**Leyre Catalán Ros**  
Ingeniaria



ARG.: UPNA

## **Leyre Catalán Ros**

Barañain, 1993.

- **Industria Teknologietako Ingeniaritzako** Gradua eta **Industria Ingeniaritzako masterra** egin zituen NUPen.
- **Energia Sistemen masterra** egin zuen Högs-kolan i Gävlen, Suedian. Tesia, berriz, NUPen egin du.
- **Smart Cities** Institutuko kide da (ISC).

Leyre Catálan Ros ingeniariak Nazioarteko Termoelektzitate Elkartearen saria jaso zuen (International Thermoelectric Society), jarduera bolkanikotik elektzitate lortzeko sistemari buruzko tesian egiten ari zen lanarengatik. 2020an izan zen hori, eta, orain, tesia bukatuta, horretan jarraitzen du lanean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Gutziz sinetsita dago hori dela bere bidea, txikitan halakorik bururatu ez bazitzaion ere: "Ez neukan arrastorik ere zer ikasi nahi nuen, denetik izan nahi nuen: ile-apaintzailea, auto-lasterketetako gidari...". Pianoa ere ikasi zuen, eta zaletasun asko zituen; tartean, teknologia. Hala, unibertsitatean, industria-ingeniaritza ikastea erabaki zuen, gero adar asko dituelako aukeran.

Horretan ari zela ezagutu zuen sumendien energia erabiltzeko proiektua, eta, haren hitzetan, "maitemindu" egin zen. "Batez ere erakartzen ninduen energia horren erabilerak ez diola kalterik egiten ingurumenari; horrek asko asebetetzen nau". Erasmusekin Suediara joan zen, gero Australiara, eta, handik itzuli zenean, proiektuarekin maitemindu eta buru-belarri sartzea erabaki zuen, nahiz eta aukera zuen Australian hiru urtez ikertzeko beste arlo batean.

"Bat-bateko maitemina izan zen, eta dena utzi nuen horregatik. Eta orain ohartzen naiz bete-betean asmatu nuela. Hain gustura egin dut tesia, ez zait batiere kostatu. Eta, gainera, ikusi dugu funtzionatzen duela. Zirrargarria da aurretik inork egin ez duen zerbait lortzea, sekulakoa da".

Zehazki, sumendien beroa elektzitate bihurtzen duten gailuak sortzen dituzte. Horretarako, lehenik ordenagailuz egiten dute lana: diseinatu, optimiza-

tu... Gero, tailerreko lana dator, eta, azkenik, dago-kion lekuan probatzen dute. Catalánek eta kideek Teiden eta Timanfayan egin zituzten probak.

### Antartikan zein antzerkian

Hurrengo pausoa Antartikan izatea nahiko luke. Oraindik ez da ziurra, baina hara joateko asmoa dute. "Hain zuzen, han badago uharte bat, Deception, sumendi aktibo bat duena. Ferra itxurakoa da, eta oso esanguratsua da ikuspegi zientifikotik. Kontua da ezin dela jarduera bolkanikoaren jarraipena egin, tresnek behar duten elektzitate, normalean, eguzki-energia bidez lortzen baita, eta, han, sasoi batean, egunak ez du argitzen. Beraz, helburua da neurgailuak elektzitatez hornitzeko sistema bat jartzea, hango kondizioetara egokituta", azaldu du, grinatsu. "Gure teknologiak han funtzionatzen badu, munduko edozein sumenditan funtzionatu ahalko du".

Ikerketa pasioz bizi badu ere, beste alderdi bat lantzeko tartea ere hartzen du: dibulgazioa. Hain zuzen ere, *Yo quiero ser científica (Nik zientzialaria izan nahi dut)* antzezlanaren aktoreetako bat da.

"Oso ekimen polita da, haurrekin hitz egiteko aukera izaten baitugu. Orduan konturatzen gara zein irudi okerra duten zientzialariez. Adibidez, galdetu izan digute garaje batean ikertzen ote dugun, edo ba ote dugun familiarik edo lagunik... Erabat sinetsita nago antzerkia oso baliagarria dela egiazko ereduak ezagutu ditzaten".

Horrez gain, Iberus Campusek antolatzen duen "Tesia hiru Minututan" lehiaketa irabazi zuen. "Ikerketea garrantzitsua da, baina ikerketa gizarteratzea ere bai", dio Catalánek. Bietan dabil bera, eta, bietan, gozoz eta arrakastatsu. ●



SARBAN+

Elkarrizketa osoa  
webgunean



Kultura  
Zientifikoko Katedra  
Cátedra  
Cultura Científica

UPW/EHU Kultura  
Zientifikoko Katedraren  
lankidetzan egindako atala.